

IÑIGO URRUTIA, UDAL LEGE EGITASMOAZ

# «Udalek gaztelania hutsean jarduteko aukera izatea oso arriskutsua iruditzen zait»

Ondo bidez, aurki onartuko du EAEko legebiltzarrak udalei eskumen gehiago emango dizkien Udal Legea. Euskarari buruz zer dioen galdetu diogu Iñigo Urrutia EHUko legelariari. Udalerri euskaldunak babestuago egongo direla dio, baina aukera galduak ere zerrendatu ditu.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |



INIGO AZKONA

“Nik ondoko parametroa proposatuko nuke: Orubea elebitasuna izatea, eta hortik gora, eta egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta, elebakartasunera hurbiltzeko bidea zabaltzea, euskarazkoa, normaltasun osoz”.

Zer ekarpen egin du Udal Lege egitasmo honek?

Nahitazko lege proiektua dela esan daiteke, bereziki Estatuko Gobernuak toki-administrazioaren arloan indarrean jarri duen eraberritze oro-

korrari aurre egiteko. Udal Lege proiektuak hainbat arlo arautzen ditu, udal eskumenak, finantzazioa..., eta euskarari ere tokia egin zaio.

Beharrezkoa zen euskara lantzea udalerri mailan, euskaraz jarduten

duten udalerriak lege estaldurarik gabe ari direlako. Euskararen Legeak, 1982an, bi sistema aurreikusi zituen, bata udalerri euskaldunei begira eta bestea orokorra. Geratu den sistema bakarra, siste-

## Behar adinako lege babesik gabe ere aurrera egiten

UDAL ASKOTAN, azken lau urteotan batik bat, pauso inportanteak eman ditugu hizkuntzaren normalizazioan: euskaraz ari gara lanean, ahoz eta idatziz. Asko kosta zaigu ele bitan lan egin beharraren (egia osorik esateko, gaztelaniaz sortu eta euskarara itzultzearen) mentalitatea urratzea eta euskaraz lan egiteari zilegitasuna eta balioa ematea. Bide hori legearen babesik gabe egin dugu, agintari eta langile batzuen ausardiaz eta borondatez. Eta izan dira erasoak eta ekaitzak, eta nola edo hala egin diegu aurre, legeak ez baitzuen behar adinako babesik ematen.

Euskarari atal bat eskaini diote EAEko udalen autonomia eta eskumenak indartu nahi dituen lege proposamenean. Zer berri dakar proposamenak guretzat, udaletan euskararen erabilera normalizatzen ari garen teknikariontzat? Hori da Hernanitik erantzuteko eskatu didatena. Eta Hernanitik, Adarra mendira begiratuta, gandu handi samarra ikusten dugula esan behar. Erdi bide-raino seguru samar joateko babesgarriak jarri dizkigute. Estatuko ordezkariak ez gaitu amildegira botako beste administrazio



DANI BLANCO

batera dokumentuak euskara hutsean bidaltzen ditugunean, edota udaleko idatzi batzuk euskara hutsean idatziko ditugulako. Horiek babes juridiko osoa izango omen dute proposamen berrian. Baina, Besabitik gora Adarrako tontor aldera abiatu nahi duenak (alegia, Madrildik etorri diren erasoek aurre egiteaz gain udalak beren eguneroko bizitzan benetan euskaraz funtzionatzea nahi duenak) lehen bezalaxe joan beharko du, amildegiaren ertzetik eta babesgarririk gabe, ausardiaz eta borondate handiz.

**Malores Etxeberria,  
Hernaniko Udaleko  
euskara teknikaria**

ma elebiduna da. Zurrunegia da zenbait testuingurutarako, adibidez, euskaraz funtzionatu nahi duten udalerrietzat, euskaraz eta gaztelaniaz egin beharra baitute. Beharrezkoa zen euskarazko jardun normalari babes juridikoa emango dion lege bat indarrean izatea.

Beste ekarpen bat ere egin du. Hemen, jurisprudenzia oso mugakorra izan dugu. Katalunian eta Galizian adibidez, botere judizialak sententziak eman dituenean naturaltasunez jaso du udalek katalanez edo galizieraz lan egiteko aukera. Aldiz, EAEn, halako jurisprudenziarik ez da aplikatu eta udalerrri euskaldunek hainbat oztupo aurkitu dituzte, bereziki sententzietan.

Jurisprudenzia horri bestelako irakurketa bat eman ahal izateko oso garrantzitsua da lege baten bitartez euskarazko funtzionamendu normalizatuari estaldura ematea.

**Lege honek ordea, udalei euskara lehenatasunezko hizkuntza dutela jarduteko aukera ematen al die?**

Orokorrean horrela jasotzen du, lehenatasunezkoa izan daitekeela aipatu gabe. Besterik da norbanakok gaztelania erabili nahi badu, hari gaztelaniaz erantzun beharko litzaioke.

Legeak ordea, arazo batzuk baditu. Lehenbizikoa da euskarazko funtzionamendu normala aurreikusten duen neurrian, gaztelaniazko jardun

**“Legeak dioenaren arabera, Lizartzako zinegotziak esan dezake ordutik aurrera gaztelaniaz egin behar dela, euskaraz ez dakielako. Ez dauka inolako logikarik, ez dio mesederik egiten inori”**

normala ere zilegi bihurtzen duela. Beraz, orain arte udalerriek bi hizkuntzetan funtzionatu behar zuten. Aurrerantzean, udalerriek euskaraz jarduterik izango dute, baina baita gaztelania hutsez ere.

**Horrek zein ondorio izan dezake?**

Gerta daiteke Barakaldoko Udalak dena gaztelaniaz egitea erabakitzea. Orain arte lege ez zegoen hori egiterik. Nik ondoko parametroa proposatuko nuke: orubea elebitasuna izatea, eta hortik gora, eta egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta, elebakartasunera hurbiltzeko bidea zabaltzea, euskarazkoa, normaltasun osoz. Gaztelaniaz jarduteko aukera jasotzea oso arrisksua iruditzen zaizkigu, euskararen ikuspegitik atzeraka joan gaitezkeelako zenbait testuingurutan.

**Abanikoa oso irekita uzten du.**

Akaso Arabako zenbait eskualdetako herri gehienek erabakiko dute gaztelania hutsez aritzea, barne funtzionamenduko hizkuntza gisa. Hori zilegi bihurtzen du.

**Agintean den alderdi politikoaren arabera alda daiteke.**

Hala izan daitekeela iruditzen zaizkigu. Hizkuntza erabilera sistema berri honi aurkitzen dizkiodan azalpenak bi dira. Batetik, Konstituzio Auzitegiak 2010. urtean zabaldu zuen norabideari estuki jarraitzea, hizkuntza sistemari Konstituzio Auzitegiaren jurisprudenzia ezarri dituen mugak barneratuz. Bestetik, itun politikoren baten emaitza izatea, EAJren eta PSOEn arteko negoziaketetan. Badirudi, udalerrri euskaldunei estaldura ematearen ordainetan, hainbat udali gaztelania

hutsez funtzionatzeko aukera zabaldu zaiela.

**Esana duzu beste muga bat baduela lege egitasmoak: udalak euskara hutsez egin ahal dituen dokumentu guztiak ez ditu babesten.**

Proiektuak zerrenda itxi bat jasotzen du. Lege ikuspegitik ez diot oinarri nahikorik ikusten. Euskarazko jardunak erabat legezko izan beharko luke, hemen aipatzen diren dokumentuez gain, gainontzeko dokumentazioa ere udal batek euskaraz landu dezake, euskara ofiziala baita.

**Logikaren bat badauka zerrenda zehatz horrek?**

Espainiako Estatuako 1986ko errege dekretu zahar batean jasotzen den dokumentu zerrenda da, hala nola, osoko bilkuren deialdiak, gai zerrendak, mozioak, boto partikularrak, erabaki proposamenak, eta beste hainbat euskaraz idatzi ahal izango dira. Kontraesana dago. Batetik, Estatuako 1992ko Administrazio eta Prozedura Legearen arabera, Estatuako administrazio periferikoak euskaraz lan egin beharko du eskatzaileak –norbanakoak– euskara erabiltzen badu, eta beraz, espedienteetako dokumentu guzti-guztiak euskaraz jaso beharko ditu. Bestetik, Udal Legearen arabera, gure udalerriek 6-7 dokumentu horiek bakarrik landu ahal izango dituzte euskara hutsez. Eta gainontzekoak? Hori bai paradoxa. Estatuako administrazioan dokumentu guztiak euskaraz eta udalerrri euskaldunetan batzu-batzuk baino ez.

**Carlos Urquijo Espainiako Gobernuaren EAeko ordezkariak salaketak jartzeko aukera izango du orduan?**

Bai. Euskara gaietan, legeak propio babesten ez dituen jarduerak errekurritzeko aukerakoak dira Gobernuko ordezkariarentzat. Segurtasun juridikoa areagotzea behar dugu beraz.

## Euskararen alde adostasuna eta ausardia

**Zer ekarpen egin du egitasmoak?**

UEMAren ustez Udal Legearekin pauso bat aurrera emango dugu. Udalei euskara lantzeko eskumena bera aitortzea urrats garrantzitsua izango da. UEMA mankomunitate gisa existitzeari berari ere legezotasuna aitortuko dio Udal Legeak. Eta zalantzarik gabe, urrats garrantzitsua da hori. Horrez gain, 10/82 Euskararen Legeak eragiten duen ele biko funtzionamendu zurruna ere eteteko saiakera ikusten zaio, eta udalen lan eremuan, bereziki, euskara hutsez lan egiteari bidea zabaltzen dio lege berriak.

**Zein ahulgune ditu?**

Gure ustez hutsune garrantzitsuak ditu. Lehenengoa da udalei euskara sustatzeko eskumena eman bai, baina obligatorik ez diela jartzen. Hala, une bakoitzeko agintarien esku geratzen da euskara sustatu edo ez sustatu. Horrez gain, legean euskaraz aritzeari mugak jartzen zaizkio. Kasuren batean, indarrean dagoen Euskararen Legearen inguruan egindako interpretazio murriztaileenak ezarritako mugak ere ez ditu gainditzen. Eta gure ustez hor euskaraz aritzeko aukera zabalagoa utzi beharko litzateke. Hizkuntza paisaia ele bietan egiteko derrigortasuna ezartzen du, kasu guztietarako, eta abar. Gainera, arautu beharko liratekeen beste



UEMA

hainbat kontu arautu gabe uzten ditu: kontratazioen kontua, egoera soziolinguistikoan eragina duten erabakien aurrean, eragina neurtu eta neurriak hartzeko premiak, eta abar.

Finean, euskararen kontua gehiegi landu gabe dago Udal Legean. Garrantzitsua da EAEk bere Udal Legea izatea, bestela estatukoaren menpe egon behar dugulako, baina hizkuntzaren kontuarekin oso azaletik aritu direla uste dugu. Hori eta gero, Udal Lege horrez gain, euskararen erabilera arautzen duten lege eta jarraibideekin egungo egoera hobetzeko adostasuna bilatzen hasi beharko dugu nahitaez. Euskararen normalizazioan, legeak ere alde beharko ditugulako.




**Maren Belastegi,  
UEMAko lehendakaria**

**Adibide bat eman dezakezu?**

Azpeitian errepidea pasatzekoa da. Udaleko idazkariak txostena egin behar du esateko ea hirigintza araudiarekin bateragarria den proiektua. “Idazkariaren txostenak” dokumentua ez dago zerrenda horretan.

Konpontzea oso erraza da, “eta gainontzeko dokumentuak” edo halako klausula bat jar daiteke, edo dokumentu zehatzik aipatu barik esan daiteke euskaraz lantzen diren dokumentu ofizial guztiek eragin juridikoa izango dutela, beti ere

Babeslea: IVAP

|  |   |  |  |
|--|---|--|--|
|  <p>HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA</p>  <p>euskad.eus</p> |  <p><b>Enplegu Publikoa</b></p> <p>Lan-eskaintzen harpidetza<br/>Lan-jeltuak (Eusko Jaurlaritzak)<br/>Beste administrazioetako lan-eskaintzak<br/>Hautaketak<br/>Ondakiletza: 2014-15eko Enplegu Publikoaren eskaintza<br/>Ertzaitzaren XXV. Promozioa</p> |  <p><b>Prestakuntza</b></p> <p>Administrazio orokorra<br/>Toki Administrazioak<br/>Foru erkandialak<br/>Bereziako hizkuntza prestakuntza<br/>EYETU<br/>Prestakuntza jardueren homologazio prozesuak</p> |  <p><b>Euskara</b></p> <p>Euskararen ikasketak<br/>Hizkuntza eskakizunak<br/>Berezitako hizkuntza prestakuntza<br/>Argitalpenak<br/>Euskaraz lan egiteko beharrik<br/>IZO - Hizkuntza Zeharritze Ofiziala</p> |
|--|---|--|--|

## Teilatu berria euskararen eraikinean

GAI HAUETAN ohituta ez gaude-nontzat, zail suertatzen zaigu ulertzea norainoko garrantzia duen lege honek. Baina labur esanda, pisu –eskuduntza– gehi-go emango zaie udalei eta euren ordezkariari –egun Eudel– bere esparrukoak diren gaiak antolatzeko eta kudeatzeko orduan. Eta udal aginpe edo eskumen horien barruan, euskararen normalizazioari dagokiona.

Ez dut uste, alabaina, zeregin horietan jarduten dugunok aldatetarik nabarrituko dugunik, baina egia da kanpoko erasoetatik –azken boladan bortitzak– babesteko lege berri hau bezalako teilatu sendo bat behar genuela aspalditik, orain arteko euritako ahul, higatu eta itoginez bete ortzeko. 35 urte luze behar izan dugu genuena beste modu apainduago batez aurkezteko: EAEn euskara hizkuntza ofiziala dugula, berezkoa, eta euskararen erabilera normala eta orokorra izango dela toki-erakunde zereginetan eta, gainera, euskara toki-erakunde jardueretan zerbitzu- eta lan-hizkuntza izango dela. *Et voilà...*

Udalei eskuduntzen pisu nagusia uzteak babesa bermatuko lioke euskarari, egunen batean Eusko Legebiltzarra euskararen kontrako indar politikoz beteko balitz.



F.M.MK UTZIA

Aitzitik, zereginen atomizazioak perspektiba estrategikoa ukatzen dio garapen nazional orokorrari. Ni zentralizatzearen eta ez sakanatzearen aldekoa naiz, batez ere hizkuntza normalizazioa bezalako gaietan, goitik beherako planteamenduarekin, bai, munduan diren beste komunitate eleantiztunetan arrakasta handiz egin bezalaxe.

Denborak argituko digu orain ikusi ezin dezakegun etorkizuna. Bitartean, nola ez, bide on asmo onez egindako lege berriari.

**Felix Mugurutz  
Montalbán,  
Laudioko Udaleko  
euskara teknikaria**

norbanakoek baliatzen duten hizkuntza errespetatuz gero.

Berez, hizkuntza ofizialtasunak dakarrena da hizkuntza horretan egindakoak formalki eragin juridikoak sortzeko ahalmena duela, norbanakoek erabili nahi duten hizkuntzari kalterik egin gabe. Barne funtzionamenduko dokumentuak euskaraz landu daitezke arazorik gabe, jakinarazpenak eta zerbitzuak eskaintzerakoan, ordea, norbanakoren hizkuntza eskubideak errespetatu behar dira.

**Udal Legearen egitasmoak herritarri deserosotasunik ezin zaiola eragin dio. Zer esan nahi du horrek?**

Hori jakinarazpenetan erabili beharreko hizkuntzari lotzen zaio eta Konstituzio Auzitegiaren 2010eko epai batean dago oinarrituta. Sententzia horren arabera, udalek katalana edo gaztelania normaltasunez erabil dezakete, beti ere norbanakoei dokumentuak nahi duten hizkuntzan bidaltzen bazaizkie. Norbanakoak hizkuntza aukeratzeko eskubidea duenez, hizkuntza aukeraketa espresurik egin beharrik ez du.

Kontrakoa ere uler daiteke. Udalak isuna gaztelaniaz bidali badit balio juridikorik ez diodala emango esan dezaket, nire hizkuntza ez delako asmatu.

**Erakundeak asmatu behar du norbanakoak nahi duen hizkuntza? Ondorioa zein litzateke, ele biz bidali eta arazoa gaidituta?**

Konstituzio Auzitegiak buruan daukana hori litzateke, bi hizkuntzetan bidaltzea, horrek ez dio inolako deserosotasunik sortzen norbanakoari. Halere, Konstituzio Auzitegia ideia hori adieraztera ez zen ausartu, hizkuntza sistema ezartzea erkidegoen eskumena baita, eta elebitasun orekatua aukeratetik bat baino ez da, berezko hizkuntzaren erabilera normalizatuarekin batera. Betiere, berriro diot, norbanakoek dokumentuen hizkuntza aukeratzeko eskubidea dute. Epaiaren arabera, norbanakoak ez du zertan jarra aktiboa hartu hizkuntza aldatu dadin. Imajinatu: orain udalak euskaraz bidaltzen dio isuna norbanakoari. Jurisprudentziak esaten duena da udalak, ezer bidali aurretik, ahalegina egin behar duela norbanako horrek zein hizkuntza erabiltzen duen jakiteko, eta hizkuntza horretan bidali. Arazoa da epaiak dioela norbanakoak ez daukala nahi duen hizkuntza zein den adierazteko beharrik, administrazioak asmatu behar du. Nahiko gauza ulergaitza da.

**Udalerrri euskaldunetara ekarrita. Ele biz egitea saihesteko aukera izan daiteke herritarrei lehentasunezko hizkuntza galdetzea?**

Nire ustez ez da deserosotasun handia hizkuntza batean jaso, eta beste hizkuntzan nahi baduzu eskatzea. Deserosotasun txikia izan daiteke, eramangarria.

**Euskara hutsez aritzea hobesten duzu, baina gerta daiteke norbanakoren bat kexatzea edo Urquijo berriz etortzea.**

Udal Legean jarri ahal zen udalek errespetatuko dutela norbanakoen hizkuntza-aukeraketa... edo horrelako zerbait. Horrekin nahikoa izan zitekeen, jurisprudenzia hori hitzez hitz legera ekarri gabe.

**Udalerrri euskaldunetarako arrisku bat gehiago.**

Udalerrri horietan presuntzio bat dago, jende guztia euskalduna dela, edo portzentaje oso altua. Euskara

ulertzen badute zergatik ezin zaie euskaraz normaltasunez jakinarazi?

Euskaraz ez dakien zinegotziak udaleko euskarazko jarduna baldintza dezake?

Legeak dio udalek euskaraz funtzionatu dezaketela normaltasunez, baina muga bat jartzen du: udal korporazioko jende guztia euskalduna bada euskara hutsez jardun daiteke, baina zinegotziren bat erdalduna bada ezin da euskara hutsean aritu.

Legeak ez duela arrazoirik iruditzen zait, udalek halako kasuetan mekanismoak jar ditzaketelako: laburpenak eman gaztelaniaz; gerta daiteke euskara ez hitz egitea baina ulertzea... Legeak dioenaren arabera, Lizartzako zinegotziak esan dezake ordutik aurrera gaztelaniaz egin behar dela. Ez dauka inolako logikarik, ez dio mesederik egiten inori. Ez dut uste benetako arazorik dagoenik, eta arazoren bat baldin badago alderdi politikoek konpondu beharko lukete, eta euskaldunak jarri.

**“Orain arte udalerrri euskaldunek lege estaldurarik gabe jardun dute, eta alde horretatik, irakurketa erabat positiboa badu legeak”**

**Legez behartu daiteke zinegotzia euskara jakitera?**

Espainiako legediak ez du aurreikusten. Aldiz, Letonian, parlamentuko kide izateko letonieraz jakiteko beharra dago. Giza eskubideen auzitegira heldu zen gaia eta 2002an auzitegiak esan zuen hori zilegi dela. Estatu batek hizkuntza eskakizunak ezar ditzake funtzio politikoak bete ahal izateko, parlamentuaren jardura normalizatua hizkuntza horretan bada. Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendari ohiak [Zigor Etxeburuak] gaia aipatu zuen eta iskanbila sortu zen. Giza eskubideen ikus-

pegitik ez dauka inolako problemarik.

Udal Legea tresna baliagarria dela uste al duzu euskarazko udal jardura normalizatzeko?

Orain arte udalerrri euskaldunek lege estaldurarik gabe jardun dute, eta alde horretatik, irakurketa erabat positiboa badu. Udalerrri euskaldunak lasaiago ibiliko dira. Ahuleziak artezteko aukerak berriz, parlamentuan oraindik badaudela uste dut. Legeak ez du jaso trataera berezirik udalerrri euskaldunentzat eta hausnarketa egin beharko litzateke. Bestalde, euskarazko funtzionamendua erabat legezko bihurtzen du, baina ordainetan, gaztelania hutsezko jardunari bidea irekitzen dio, pena.

Eta azkenik, jurisprudentziak bere horretan ekarri ditu, muga eta guzti. Jurisprudentzia aldatu daiteke, baina legean jasotzen baduzu jurisprudentziak dioena, zurruna bihurtzen duzu. Zurrunegia, nire ustez, hizkuntza normalizazio gaietarako. ■

**Kalean da udako**



**aizu!**

- Fanzineak bizi-bizi
- Jakoba Errekondo arin-arin
- Uda betean ez aspertzeko, bost aukera Euskal Herritik irten gabe

**Urte osoko harpidetza** (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**

**aizu.eus**